

# SORGINXULO LESAKAKO KULTUR-BILGUNEA

## 33. BILERA AKTA

EGUNA: EKAINAK 3, LARUNBATA

ORDUA: 9:30

TOKIA: HARRIONDOA KULTUR ETXEA – ALASTA GELA

### BERTARATUAK

GURE ARRANO ELKARTEA  
OTXOGORRIENEA GURASO ELKARTEA TANTIRUMAIRU IKASTOLA  
BORTZIRIETAKO BERTSO ESKOLA  
IRAIN GURASO ELKARTEA  
GEROA BAI  
IRAIN ESKOLA  
MAIRU ANTZERKI TALDEA  
SAN FERMIN JUBILATU ELKARTEA  
TANTIRUMAIRU EUSKAL FOLKLORE TALDEA  
LESAKAKO ABESBATZA  
GILTZARRI ABESBATZA  
MUSIKA ESKOLA  
LESAKAKO MUSIKA BANDA  
LESAKAKO SOINULARIAK  
TRIKITIXA ELKARTEA  
TXISTULARI TALDEA  
EH BIDU TALDEA

### AINZINAKO AKTA ONARTZEA

Onartzen da.

### KULTUR AZOKA BALORAZIOA

Gauza berria bino guztiz positiboa izan da. Aipatutako kontu batzuk:

- Urtero egitea ez da ikusten, bi urte baino gehiago edo.
- Egun erdi nahikoa ikusten da.
- Amaiera arraroa izan zen, Abesbatza eta soinulariak ailegatu orduko batzuk bilduta zuten dena. Lehenago hasi eta lehenago bukatu behar bada.
- Plazara jende gutti sartzen zen, plazari buelta eman eta ez ziren sartzen.
- Hurrengora begira bakoitzak bere proiektu berriak azaldu, nostalgia puntu hori lehendabizikoan bai baina nahikoa.
- Emanaldiak ongi. Olaian kasuan behar bada justu xamar.
- Partehartzea talde gehienak. Irudiak grabatu ziren eta ideiaia da muntai bat egin eta you tubera igo.

### HAMAR URT HAMAIIKA DINAMIKA

Emanaldien errepasoe egiten da.

### AGENDA

Ekitaldi batzuk gehitu behar dira: Loboarena abenduaren 1ean, Abesbatzaren emanaldia abuztuan, Zoki azaroan...

Dokumentalen zikloa 2024rako utziko da, urtarrilan edo..

Hurrengo ikasturteko lehendabiziko bilera irailaren 9an egitea adosten da.

Astelehenean besta batzordea izanen dela oroitarazten da.